

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Karmen Irizar Aranguren

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1948)*

Aurkibidea



Biografia



Loietia baserria jaioa. Bost anai-arreba dira. Hitanoa jasotzeko elkarrizketatu genuen, [Genaro Laskurain](#)ekin batera (koinatu-koinatak dira). Karmenek etxean jaso zuen hika eta senideen artean naturaltasunez darabilte. Semeari eta alabari ere hika egiten die.

Zintak

ANT-131

- **Proiektua:** Antzuolan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-03-11
- **Iraupena:** 101 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Hitanoarekiko aurreiritziak eta ohiturak

- **Erref:** ANT-131/012
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:08:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Momentu batetik aurrera hasi ziren esaten hika egitea edukazio falta zela. Beren aita-amek hika egiten zuten senideekin eta gertukoekin. Mutilei errazago egin izan zaie hika neskei baino. Ohitura kontua izan dela dio Genarok. Kaleko jendearekin zuka egiten zuten. Eskolan euskara galarazita zeukaten. Elizan berorika egiten zuten.</p>

2. Hika konfiantzan, zuka errespetuagatik

- **Erref:** ANT-131/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:08:59. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Batzuekin hizarako joera eta beste batzuekin zukarokoa izaten dute. Ohituraz gain, konfiantza mailak ere eragina daukela uste dute. Kuadrilan biek egiten zuten hika lagunekin, baina mutilek neskei dantza eskatzerakoan zuka egiten zieten. Errespetua behar zela entzuten zuten.</p>

3. Hitanoa indartzearen alde

- **Erref:** ANT-131/015
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Genaroren ilobek berari eta euren gurasoei hika egiten dietela azaltzen du. Hitanoa erabiltzea edukazio falta zela esaten zieten, eskolatik eta elizatik bereziki. Hitanoak adiskidetasuna erakusten duela uste du Karmenek. Hitanoa indartzearen alde daude.

4. Hika seme-alabekin, batzuek bai, besteek ez

- **Erref:** ANT-131/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:15:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Seme-alabei Karmenek hika egiten die, Genarok alabei, berriz, zuka. Ohitura kontua dela dio Genarok. Alabei ez baina suhiei hika egiten die Genarok.

5. Hitanoaren etorkizuna

- **Erref:** ANT-131/017
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:15:46. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Umeen kasuan, hika entzuten dutenek ohitura hartuko dutela uste du Genarok. Karmenek dio neska-mutikoen artean gutxi entzuten dela; lagaz gero, galdu egingo litzatekeela uste du. Genarok uste du, bere euskalkian hika egitea errazagoa dela batuan edo Tolosaldeko hizkeran hika egitea baino. Karmenek uste du bere euskalkia aldrebesagoa dela beste batzuen baino.

6. Hitanoaren transmisiorako, hizketarako ohitura berreskuratzea

- **Erref:** ANT-131/018
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

10-12 urteko neska-mutikoak eta txikiagoak erdaraz entzuten ditu Karmenek. Erdararen indarra izugarria dela dio Karmenek. Genarok azaltzen du lehen hizketarako ohitura zegoela, etxean zein kalean. Adibidea jartzen du. Karmenek dio mugikorrek eskuetatik ihes egiten ote dion jendeari.

7. Seme-alaben hitanorako joera

- **Erref:** ANT-131/022
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Karmenen semeak lagunartean hika egiten du; errainak lagunartean zuka. Alabak senarrarekin zuka egiten du. Genaroren alabek elkarri zuka egiten diote baina lagunartean hika egiten zutela uste du.

8. Haserretutakoan, hika

- **Erref:** ANT-131/027
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:34:17. **Bukatu:** 00:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika konfiantzaren ikur dela diote. Haserretutakoan, hika gogorragoa dela dio Karmenek.

9. Gazteenek ez darabilte hitanorik

- **Erref:** ANT-131/028
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:35:30. **Bukatu:** 00:38:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoa galtzeko bidean dagoela uste du Karmenek. Gazteak ez ditu hika entzuten. Berrogei urte ingurukoek egiten dutela diote. Jendea hika tratatzea lotsagabea zela dio Karmenek. Genarok dio ohiturak aldatzea ez dela samurra. Bultzatu egin behar dela diote, etxetik edo ikastolatik.

10. Gazteek hika egiten dietenean, pozik

- **Erref:** ANT-131/030
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:41:04. **Bukatu:** 00:43:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Karmenek mutilei zein neskei berdin egiten die hika; Genarok ere hala dio. Gazteren batek hika egiten dienean, poz hartzen dute.

11. Hika baserritarrena, eta baserritarrak zapalduta

- **Erref:** ANT-131/031
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:43:11. **Bukatu:** 00:46:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika egitea lotsagabekeria zen garai batean, Karmenen ustetan; zuka egin behar zitzaion jendeari. Hika baserritarren hizkera zela esaten zen. Baserritar moduan zapalduta sentitu izan da Karmen. Genarok azaltzen du aurreko belaunaldiaren garaian, maiorazgoa izatea garrantzitsua zela baina industria garatu zenean, emakumeak zigarroak erretzen eta gazteleraz hasi zirela, kategoria emango balie bezala. Baserriak hizkuntza eta beste gauza asko mantendu izanak balio handia daukala dio Karmenek. Baserritarrak jende bajutzat hartzen zituztela kontatzen du Karmenek.

12. Eskolara gutxitan, kaletarrak baxuagotzat hartu

- **Erref:** ANT-131/035
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:50:25. **Bukatu:** 00:51:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Karmen noizean behin joaten zen eskolara, lehenengo baserriko lanak ziren. Eskolan erdaraz egin behar izaten zutela dio Genarok, eta gaizki eginez gero, zigorra. Baserritarrak baxuago ikustearena hortik ere etor daitekeela dio Genarok.

13. Garai bateko jostailuak: panpinak eta gurditxo, buztina...

- **Erref:** ANT-131/036
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:51:32. **Bukatu:** 00:53:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Karmenek ezagutu zuen aitak egindako gurditxo bat, panpinentzat; bere ahizparen panpinari burua kendu zion, barruan zer zegoen ikusi nahian. Gabonetako jaiotza baserri inguruko buztinarekin egiten zuten.

14. Euskararen egoeraz

- **Erref:** ANT-131/038
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:56:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Genarok dio baserriko euskara erabiltzen zutela lehen. Gaur egun hiriburuetan lehen baino gehiago egiten dela euskaraz dio. Karmenen ustez orain dagoen baino egoera hobean egon da euskara; kanpotik etorritakoek ikasi izanari esker izan dela azaltzen du.

15. Erdara euskararen gaintik

- **Erref:** ANT-131/039
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:56:58. **Bukatu:** 00:58:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Sasoi batean erdarak kategoria gehiago ekartzen zuela diote, bereziki emakumeen artean. Sasiletratu guztiak erdaldunak zirela dio Karmenek. Karmenek pasarte bat kontatzen du medikuarekin ezin elkar ulertu ibili zirenekoa.

16. Neskek mutilekin joan behar tabernara eta feriara

- **Erref:** ANT-131/043
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:02:16. **Bukatu:** 01:03:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Domeka goizetan, meza ostean, mutilak tragoa hartzera joaten ziren tabernara. Neskek mutilekin joan behar izaten zuten tonika bat hartu nahi bazuten. Andrek feriaren batera joan nahi bazuten, gizonarekin joan beharra zeukaten.

17. Ezkondutakoan, soldatapeko lana lagatzen zuten andrek

- **Erref:** ANT-131/044
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:03:31. **Bukatu:** 01:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ezkontzeko andrek lana laga egiten zuten. Soldata bakarrarekin bizimodua aurrera ateratzen zuten, baina emakumeek lan asko egiten zituzten etxean; esaterako, arropak josi. Karmenek kontatzen du umeez jakiten zutela gurasoak non zeuden. Oraingo egoerarekin alderatzen du. Zaintza lan handiak egiten ziren lehen; ez daki Karmenek aurrerapena ala atzerapena datorren.

18. Langileen eskubideak borrokari esker hobek

- **Erref:** ANT-131/045
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:07:40. **Bukatu:** 01:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Genarok azaltzen du, logikoa litzatekeela baserria aurrera ateratzeko lana lagatzea, baina ez kalean bizitzeko. Karmenek, ostera, azaltzen du zaintza lanetarako ez zegoela inolako baimenik lantegian arituz gero, ezta atsedean askorik ere. Orain dela berrogeita hamar urteko greba eta borrokei esker, orain lan baldintza hobek daudela dio.

19. Antzuolako zinegotziak kartzelara manifestaldian parte hartzeagatik

- **Erref:** ANT-131/046
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:10:09. **Bukatu:** 01:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Genarok kontatzen du 1968ko maiatzaren leheneko manifestaldian Bergaran Antzuolako bi zinegotzi kartzelaratu egin zituztela bertan parte hartu zutelako. Ezkondu aurretik, soldata etxean entregatzen zuten. Orain gazteek gurasoetaz probetxua hartzen jarraitzen dutela dio Karmenek.

20. "Azkoittin pelotan eta Antzuolan beti narrutan" esaera

- **Erref:** ANT-131/056
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 01:23:00. **Bukatu:** 01:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

"Azkoittin pelotan eta Antzuolan beti narrutan", esaera esaten zuten.

21. Zela bizi ondo

- **Erref:** ANT-131/059
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 01:29:33. **Bukatu:** 01:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Genarok dio konformidatea ere beharrezkoa dela, eta gutxika bada ere, beti aurrera egitea. Karmenek dio gutxi behar izatea eta osasuna direla ondo bizitzea. Karmeni aitak esaten zien: "bost irabazi eta sei ez gastatu, lau". Karmenek oso gaizki ikusten du oraingo gizartea, kontsumo oso handian sartuta dagoela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com